

Kaixo,

K4 moduluko -aniztasuna eskolan- irasleen izenean idazten dizuegu. Eskuartean duzun gutun honen bidez 2. lauhilabetekorako egitasmoa azaldu nahi dizugu.

Dakizunez, seihileko bakoitzean, diziplinarteko lan bat garatzen saiatzen ari gara. Hurrengo seihilekoan lan horren ardatza "aniztasuna eskolan" izango da eta kulturartekotasunari buruzko egoera baten aurrean jarri nahi zaituztegu: eskola bateko irakasleak izango zarete dira eta 5 haur etorriko zaizkizue beste herrialde batetik. Hori dela eta, ikasle eta familia horientzako harrera plan bat garatu beharko duzue zaudeten eskolan.

Lehenengo egunean, eskolan ematen ari den errealitate hori zuengana, ikasleongana hurbildu nahi dugu. Horretarako, bigarren seihilekoaren lehenengo egunean (urtarrilaren 30ean) jardunaldi bat antolatzea pentsatu dugu. Jardunaldira etorkinekin lan egiten duten lau elkarte -Amanda, Bachué, Norabide eta Harresiak apurtuz- eta lau eskola -Ramón Bajo, Aranbizkarra, Landazuri eta IPI Sansomendi- gonbidatu ditugu.

Horiez gain, Hezkuntza Saileko Eskolatze Batzordeko pertsona bat eta Berritzeguneko beste bat gonbidatu ditugu beraiek egiten duten lanaren berri emateko.

Jardunaldian 250 ikaslek parte hartuko duzue gutxi gora behera. Antolaketa behar den bezala egin ahal izateko, aste honetan bertan gela bakoitzean, hurrengo lauhilabetekorako taldeak osatuta ekartzea eskatzen dizuegu (4 pertsonako taldeak).

Jardunaldiaren egunean eskola eta elkarte bakoitza gela desberdin batean egongo da eta aurkezpen txiki bat egingo dute eta ondoren, zuek, ikasleek hainbat galdera egin beharko dituzue. Horretarako, oinarriko galdera batzuk pasako dizkizuegu alde aurretik. Pasatzen dizkizuegun galdez gain, zuek beste batzuk egin ditzakezue eta eskolek eta elkarteek ere, eurek aipatu nahi dutena, kontatu dezakete.

Jardunaldiari amaiera emateko pentsatu dugu ondo legokeela, Berritzeguneko eta Eskolatze Batzordeko norbait etortzea ikasleei kontatzera aholkularitza zer lan egiten den eskolekin, ze irizpide, eta ze baliabide dauden, ze gauza zaindu behar diren e.a.

Eta hauxe da eskatu nahi dizueguna, aste honetan bertan, gela bakoitzeko taldeak eginda ekartzea modulu honetako koordinatzaileei (Arantza eta Pili). Urtarrileko lehenengo astean gelako ordezkariak gure bulegotik pasatzea talde bakoitzari prestatuko diogun ibilbidea (edo hoja de ruta moduko bat) jasotzera.

Orain arte azaldutakoa erakargarria izango zaizuelakoan, agurtzen gara. Edozein zalantza baduzue edo informazio gehiago nahi baduzu honako hauek dira gure bulegoak, telefono eta e-posta:

Pilar Aristizabal: 1-10 bulegoa; p.aristizabal@ehu.es; Tfnoa: 945- 013345

Arantza Rodriguez: 2-13 bulegoa; arantzazu.rodriquez@ehu.es; Tfnoa: 945 014219